

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

248. zenbakia

Data 2013-12-31

59 orria

4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1093/2013 FORU AGINDUA, abenduaren 19koa, ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen aitorpen telematikoak zehazten dituenak.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.093/2013 FORU AGINDUA, abenduaren 19koa, ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen aitorpen telematikoak zehazten dituenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak garatutako Ordainketa-pasabidea izeneko tresna informatikoa erabiltzea eta, beraz, zergak, tasak eta zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuk Internetez ordaintzeko foru sisteman sartzea. Horretarako, abenduaren 11ko 1.074/2008 Foru Agindua onartu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko diru sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duena.

Geroago, otsailaren 11ko 85/2009 Foru Aginduaren bitartez, ezarrita utzi zen zer aitorpen telematiko ordaindu daitezkeen ordainketa-pasabidea erabilita.

Urte hauetako eskarmentuaren ondoren, iritzi da egokia izan daitekeela ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen aitorpen telematikoen kopurua handitu eta haien artean sozietateen gaineko zergari dagozkion autolikidazioak ere sartzea.

Hortaz, foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, sozietateen gaineko zergaren 200, 202, 220 eta 222 ereduetatik ondorioztatzen diren diru sarrerak ere ordaindu ahal izango dira ordainketa-pasabidearen bitartez.

Foru agindu honek ez du, aurrekoaren aldean, beste ezein berritasunik. Dena den, araututako sistematika dela-eta, egokitze jotzen da foru agindu berri bat onartzea, alde batetik, haren bidez aurrekoa indargabetzeko eta, bestetik, ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen autolikidazio guztiak bertan jasotzeko.

Horren indarrez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen zerga aitorpenak.

Bat. Abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko diru sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duenak, ahalbidetuko du zerga aitorpenetatik datozen diru sarrerak baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz ordaintzea, aitorpen horiek honako hauek direnean:

110 erdua. Lan etekinengatik, jarduera ekonomikoen etekinengatik eta sariengatik egindako atxikipenen eta konturako sarreraren hiru hileko autolikidazioa.

111 erdua. Lan etekinengatik, jarduera ekonomikoen etekinengatik eta sariengatik egindako atxikipenen eta konturako sarreraren hileko autolikidazioa.

115.ª erdua. Hiri ondasun higiezinaren errentamendutik datozen etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Aitorpena eta ordainketa agiria.

117 erdua. Errenten edo ondare irabazien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa: Inbertsio kolektiboko erakundearen kapitala edo ondarea adierazten duten akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa.

123 erdua. Kapital higigarriaren hainbat etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa.

124 eredua. Kapital higigarriaren eta errenten etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa: Besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten edozein motatako aktiboak eskualdatu, amortizatu, itzuli, trukatu edo bihurtzea.

126 eredua. Finantza erakundeetan zabalduetako kontuetatik, aktibo finantzarioetan oinarritutakoak barne, eratorritako errenten eta kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa.

128 eredua. Kapitalizazio eragiketarik eta bizi edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik datozen kapital higigarriaren errenten edo etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa.

130 eredua. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketa zatikatua.

200 eredua. Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioak (establezimendu iraunkorrena eta errentak esleitzen dituzten entitateena –atzerrian eratuak izanik Gipuzkoan dihardutenena–).

202 eredua. Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ordainketa zatikatuaren autolikidazioa (establezimendu iraunkorrena eta errentak esleitzen dituzten entitateena –atzerrian eratuak izanik Gipuzkoan dihardutenena–).

210 eredua. Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Aitorpen arrunta.

211 eredua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Ondasun higiezinak eskualdatzean egiten duten atxikipenaren aitorpena.

213 eredua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren aitorpena.

216 eredua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Aitorpena.

220 eredua. Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa: Zerga baterakuntzako araubidean dauden taldeak.

222 eredua. Sozietateen gaineko Zergaren ordainketa zatikatuaren autolikidazioa: Zerga baterakuntzako araubidean dauden taldeak.

300 eredua. BEZaren hiru hileko autolikidazioa. Araubide orokorra

309 eredua. BEZaren aldizkakoa ez den autolikidazioa.

310 eredua. BEZaren hiru hileko autolikidazioa. Araubide erraztua.

320 eredua. BEZaren hileko autolikidazioa. Enpresa handiak.

330 eredua. BEZaren hileko autolikidazioa. Hileko itzulketen erregistroa.

353 eredua. BEZaren hileko autolikidazioa. Entitate taldearen eredu metatua.

370 eredua. BEZaren hiru hileko autolikidazioa. Araubide orokorra eta erraztua.

390 eredua. BEZaren urteko autolikidazioa. Araubide orokorra.

391 eredua. BEZaren urteko autolikidazioa. Araubide erraztua.

392 eredua. BEZaren urteko autolikidazioa. Araubide orokorra eta erraztua.

40E eredua. Bingo Elektronikoa dagokionez, Jokoaren gaineko Zergaren autolikidazioa.

430 eredua. Aseguru Primaren gaineko Zergaren hileko autolikidazioa.

560 eredua. Elektrizitatearen gaineko Zergaren autolikidazioa.

561 eredua. Garagardoaren gaineko Zergaren autolikidazioa.

562 eredua. Tarteko Produktuen gaineko Zergaren autolikidazioa.

563 eredua. Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren autolikidazioa.

564 eredua. Hidrokarburoen gaineko Zergaren autolikidazioa.

566 eredua. Tabako Laboreen gaineko Zergaren autolikidazioa.

569 eredua. Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren autolikidazioa eta zerga horretatik salbuetsitako hornikuntzen zerrenda.

581 eredua. Hidrokarburoen gaineko zergaren autolikidazioa.

582 eredua. Hidrokarburoen gaineko Zerga. Produktuak beste lurralde historiko batera edo beste autonomia erkidego batera berrigortzeagatik egin beharreko erregularizazioa.

Bi. Aurreko apartatuan zerrendatu diren eta telematikoki aurkeztuta dauden ereduen aitortpenak ordaindu ahal izango dira ordainketa-pasabidearen bitartez.

Hiru. Ordainketa-pasabidea erabiltzeko aukera baztertu gabe, derrigorrezkoa izango da bankuan helbideratzeko datuak betetzea aurreko bat apartatuan jasotako zerga aitortpenak telematikoki aurkeztean, fitxategi informatikoetan edo formularioetan horretarako eremuak gorde badira eta aplikazioetan horrela egin behar bada.

Autolikidazioa igorri ondoren erabili behar da ordainketa-pasabidea, aurreko paragrafoan jasotakoari jarraituz.

Alde horretatik, ordainketa-pasabidea erabiltzen denean, posible izango da aitortpena ordaintzea aurkezpen telematikoa egitean adierazitakoa ez den beste helbideratze kontu baten kargura.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzen da otsailaren 11ko 85/2009 Foru Agindua, ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen aitortpen telematikoak zehazten dituen.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2013ko abenduaren 19a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(10875)(12025)